

# ITZULINGURU

**Itzultzaile neuronalen erabilera  
hizkuntza-jarduera arautuetan**

Eduardo Apodaka eta Asier Basurto  
Donostia, 2024/09/11

# Emaitzen txostena

---

[www.soziolinguistika.eus/itzulingurutxostena](http://www.soziolinguistika.eus/itzulingurutxostena)

Zabalpen publikoa irailaren 16tik aurrera



# Proiektuaren SORRERA

---

- Urtetako harremana  
(Jendaurrean Erabili proiektua)
- Innoklab ikerketa taldea sortzen
- Elhuyarrekin kezka partekatua
- Ildo baten abiapuntu

# Aztergaia

---

## **Itzultzaile neuronalen inpaktua euskararen erabilera aplikatu kasuetan**

Euskaraz garapen teknologiko maila aurreratua du.

Gizarteko testuinguru arrunt eta anitzetan baliatzen da. Erabilera arautuko testuinguruak


Ildo zabalago baten abiapuntu?

Adimen artifizialaren bestelako aplikazioak eta hauen efektu soziolinguistikoak

Hizkuntza teknologia berrien erabilera eta ondorioak monitorizatzeko ildo iraunkorra

# MARKOA: hizkuntza-jarduera arautuak

---



Aktibitate/jarduera sistema (Engeström, Miettinen & Punamäki, 1999).

jarduera edo aktibitate arautuak

sistema gisa ulertuta

eta sisteman sortzen diren elkarreraginezko  
gatazka/tentsio/doitze/berrikuntzak

# METODOLOGIA: Esperientzia sozialen sarea

---

Esku hartze experimentalak

Testuinguruaren neurria diseinatuak

Ikasgai eta hausnarketa partekatutik  
ondorioak

# Garapen Taldea

---



# Helburuak

---

## 01


Itzultzaile neuronalek gizarte testuinguru desberdinetako jarduera-sistema arautuetan eragiten dituzten **eraldaketak, erabilerak, ahalmen berriak eta berrikuntza disruptiboak zein diren zehaztea.**

## 02

**Hainbat esku hartze diseinatzea eta proban jartzea,** jarduera-mota bakoitzean itzultzaile neuronalaren erabilera egokia, eroso eta eraginkorra egiteko xedez.

## 03

**Identifikatzea zein diren landu beharreko ahalmen berriak eta arau berriak,** euskara biziberritzearen ikuspegitik, itzultzaile neuronala maila praktikoan erabiltzeko.





# Esku hartzeak


---




# Esku hartzeak



# Esperientzien sarea



# Kronograma



**Aukerak, ikasgaiak, ondorioak  
eta aurreikuspenak**

**EMAITZAK**

# Itzultzaile neuronalaren AUKERAK

---

- Euskaraz testu **gehiago** sortzea.
- Erabiltzaileen euskarazko **gaitasuna** handitzea.
- Sortutako testuen **kalitatea** hobetzea.
- Erakundeen funtzionamenduaren **efizientzia** handitzea.
- Langileen **autonomia** handitzea eta **ahalduntzea**.
- **Heziketa-tresna** bezala erabiltzea.

# Esku hartzeen inplementazioaz IKASGAIAK

---

- Esku hartzeen **aniztasunari garrantzia eta balio handia** ikusten zaio.
- Oso ageriko **jarrera negatibo gutxi** eta oso erresistentzia esplizitu gutxi egon da esku hartzeak egon diren guneetan.
- Probak **baldintza aldekoenak dituzten guneetan** egin dira. Kontuan izan behar da beste egoera batzuetara proiektatzerakoan.
- Pertsona batzuen **lidergoa faktore erabakigarria** izan da.
- Zenbait esku hartzetan **ez da lortu planteatutakoa** martxan jartzea.
- Proiektu honetan **ez dira modu bereizian aztertu itzultzaile profesionalen iritzia eta bizipenak.**

# Ondorioak

---

## 1

Itzultzaile neuronalak, eta erakunde batera heltzen diren teknologia berriek, orokorrean, **gabeziak eta behar berriak azaleratzen dituzte.**

- Erakundearen funtzionamenduan
- Araudian
- Kideen gaitasunean
- Ikuspegi kritiko falta



# Ondorioak

---

## 2

Edozein erakundetan edozein teknologia modu egoki eta eraginkorrean erabili nahi denean, **erabilera hau ordenatu eta arautzea komeni da.**

- Funtzionamendua, hizkuntza-kalitatea eta euskararen erabilera
- Erakundeen ezaugarriak, araudiak eta kultura kontuan hartu
- Hausnarketa eta prozesu kolektibotik sortzen badira, eraginkorrago

# Ondorioak

---

## 3

**Testuen aurre-edizioa eta post-edizioa ezinbestekoak dira** testu formalak argitaratu behar direnean

- Testugintza kontzientea
- Sartzen den testutik akatsak saihestu daitezke
- Testuinguruaren arabera aurre-edizio eta post-edizioaren garrantzia aldatu egiten da

# Ondorioak

---

## 4

**Formakuntzak funtsezko egitekoa du eta hobekuntza potentzial handia du** itzultzaile neuronala probesteko, erabilera egokia hedatzeko eta prozedurak egokitzeko beharrak identifikatzeko.

- Tresna lan-fluxuetan egoki txertatzea
- Testugintza gaitasunak hobetzea
- Ohiko akatsez ohartzea
- Hizkuntza-norabide desberdinetan sortutakoa editatzea

# Ondorioak

---

## 5

**Testuen ibilbidea agerian jartzea onuragarria da.** Ibilbidea ez ezagutzeak zaildu egin dezake testuaren interpretazioa eta honekin lana egitea.

- Hezkuntzan: ebaluazioa
- Erakundeetan: berrikuspena edo interpretazioa
- Konpromiso sozio-teknikoak
  - Teknikoki (metadatuak edo lorratz digitala)
  - Trazabilitate eta aitortza irizpideak

# Ondorioak

---

## 6

Itzultzaile neuronalak **hizkuntzaren eta hizkuntzarekin lotutako gaien ikaskuntza eta irakaskuntza metodoak aldatzea** dakar.

- Teknologiarekiko ohitura eta interesa baliatu
- Irakasleak egokitu behar
- Materialak eta baliabideak itzuli
- Testugintza kontzientea eta kritikoa irakaskuntza metodo bilakatu

# Ondorioak

---

## 7

### **Garapen teknologikoan eta inplementazioan egiten diren hautuen arabekoak dira eragin soziolinguistikoak.**

- Aplikazio eta plataformetan integratu
- Euskarazko aukerak handitu. Euskal hizkuntza-komunitateak beretik eta bere eskuz sortzea
- Adimen artifizialarekin lotu
- Erakundeek idazketa-estilo propioa jorratzeko tresnak

# Ondorioak

---

## 8

Itzultzaile neuronalak **hizkuntza-ideologiak, irudikapenak, diskurtsoak eta jarrerak eraldatu** egiten ditu.

- Sortze-hizkuntza kontzeptuaren definizioa lausotu
- Hizkuntza-praktikak ulertzeko modua aldatu
- Hitzunak erabiltzaile bihurtzen dira
- Hizkuntza-autoritate eta legitimitate modu berriak sortu

# AURREIKUSPENAK maila espekulatiboan

---

- **Idazkera sinpleak eta irakurketa errazak** presentzia irabaziko dute
- Hizkuntza-sorkuntza **translinguala** eta **baliabide paralinguistikoen** erabilera orokortu egingo da
- Itzultzaileak (eta beste teknologia-azpiegitura batzuk) “**ikusezinak**” izango dira
- Erronka soziolinguistiko nagusia: **hizkuntzak ikasteko motibazioa**



**Mila esker!**

[eduardo.apodaka@ehu.eus](mailto:eduardo.apodaka@ehu.eus)

[a.basurto@soziolinguistika.eus](mailto:a.basurto@soziolinguistika.eus)


---

## ITZULINGURU

**Itzultzaile neuronalaren eragina  
hizkuntza-jarduera arautuetan**

*Distortsioak, gatazkak, egokitzapenak eta  
berrikuntzak*

2024ko iraila



[www.soziolinguistika.eus/itzulingururutzostena](http://www.soziolinguistika.eus/itzulingururutzostena)